

ZENBAT BURU

Arnaitz Gorriti

ERREPORTAIA

5.960 km. bizikletan

GEHIGARRIA

TxikiBARREN

BARREN

1998ko urriaren 9a
V. urtea - 251. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A




BERBETAN

Jose Antonio
Zuazubizkar,
antigimnasia irakas-
ten

KULTURA

Elgoibarko V.
Komiki Jardunaldiak



Ion Asensio Iberiar Penintsulari buelta bizikleta gainean

“Bidaia bakarrik egin nuen baina bakardaderik ez nuen sentitu” Ion Asensio

ETXEKIT



- Armairu enpotratuak
- Zoluak
- Sukalde eta bainurako altzariak

- Gremioen koordinazioa
- Elektragailuak
- Ateak

Luis F. Beristain

Antonio Arrillaga z/g · Tel: 943 74 43 47 (Correos parean)



ANGEL UGARTEBURU

Atal hau ez da **BARREN**en editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Umoreak

Udazkenak tristuraz blai utzi du Jon. Urtaroa gorrotatzerainoko tristuraz. Udako eguzki giroko jolasetan itzalean zeuden bazterrak, behelainoak gora egiten duen nuerrian bistaratzen dira. Baina horiek ere hortxe daude, gure miseriak eta ezinak aldarrikatuz.

Alderdi argiak hantxe du, beste aldean, alderdi iluna ere. Geurekin daramagu, soina bezala, bizitzaren bikoiztasun hori, txanponaren bi aldeak. Zehatzagoa izateko, poliedroaren itxura duen gure izateak berarekin dauzka une ilun eta argiak baina baita erdi ilun eta erdi argi diren eremuak ere.

Hezetasun mailak edo umoreak gidatzen du, urtaroak bezala, gure gorputzaldia ere. Geuk uste baino lotuago gaude naturaren zikloarekin. Gaua luzatzen eta eguna laburtzen duen udazkenak min ematen zion Lizardi, gure poeta handiari:

“Oi, zein dan ituna
beera-bear au!
Nik ez nai eguna
biurtzerik gau.”

Erdi ilun edo erdi argi, egunsenti edo ilunabar, badirudi horretan bizitzeko sortuak gabela. Eta, ez al da, gero, hobe horrela? Beti argitan bizi denak jakin dezake, benetan, zer den argitasuna?

Egin diezaiogun putz, udazkeneko behelaino eta tristura guztien gainetik, itxaropenaren txingarrari, beti daude horretarako motiboak eta. Lizarra-Garazi aldeko izarra, garazizko izarra, ilunabarrean gure pausoak bideratuko dituen iparra. Baina kontuz!

Oraindik izango dira ilunabar eta gau ilunak ere, nahi dena ahal denetik urruti samar egon ohi da eta. Bien bitartean, badakizu... “ahal denean, ahal dentxo, ene enetxo”.

Humus, humo, humedad, humor, umore... Euskaraz h-rik gabe idazten da baina ez da, horregatik, petralagoa gure umorea.

Izan ere, umoreak badu zerikusirik gure gorputzeko guruinek sortzen dituzten isurkinekin. Udazkeneko gogoetek sortzen dituzten tristura puntu horretan ere badago, Jon, isurkinen baten jarioa. Tristura, alaitasuna, gorrotoa, maitasuna deitzen ditugun horiek ere, gure gorputzaren kimikak eraginak omen dira, baina geuk ere sortaraz ditzakegu gustuko jarioak. Erderaz esan ohi den “a mal tiempo, buena cara”, ez da mezu hutsala, beharrezko dugun jarrera baizik. Jar itzazu, aprobarako bada ere, ezpain ertzak goraka eta umore onari egingo diozu bide.

Nire herrian ezagutu nuen gizon bat sendagilearen kontsultara joan zen behin, “erreuma” zeukala eta. nire gurasoek erreumari ‘umoria’ deitzen zioten. Hala zen gure zaharren hiztegian. Gorputzeko fluido edo isurkinetik edo horien eskasiak sortzen du min hori. Badute, behintzat, zerikusirik. Kontua da sendagilearengana jo zuen gizon hark honelako elkarrizketa izan zuela:

- ¿Qué le pasa señor?
- Que tengo mucho humor.
- Pues que lo tenga por muchos años.
- Para tí, cabrón.

Adarra jotzen ari zitzaiola pentsatu, minaren minez oker-okero eginda zebilen gizajoak.

Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Publizitatea:
☎ 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:

barren@topagunea.jalgi.com

ARGITARATZAILEA Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA Ainhoa Lodoso

KAZETARIAK Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

PUBLIZITATEA Miren Moreno

MAKETATZAILEA Bea Ansola

ADMINISTRAZIOA Amaia Martin

GERENTZIA Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK Irati Agirreazaldegia,

Ana Artetxe, Jose Mari Bastida,

Mari Karmen Elorza,

Maider Elustondo, Jon Eugi,

Koldo Galdona, Aintzane Garate,

Jon Garate, Juanito Gorostiza,

Arnaitz Gorriti, Alberto Iriondo,

Iñaki Jaio, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Nieves Loiola,

Ongarri Zine Kluba, Asier Orbea,

Julian Segundo, Jon Suarez,

Anjel Ugarteburu, Iban Urizar,

Miren Vallejo.

BANAKETA ARDURADUNA Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.

TIRADA 4.000 ale

LEGE GORDAILUA SS-1.038/92

*Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.*



Haurrak entrenatzaile faltan?

Aurreko asteko BARREN (250. zenbakia) irakurtzen ari nintzela, gauza bitxi bat irakurri nuen: Merkatu Txiki-ko 'Bestelakoak' atalean Ikastolako DBHko 1. mailako neskek entrenatzaile faltan daudela eta pertsona baten premia dutela adierazten zuten.

Kezkatzekoa iruditu zitzaidan. Izan ere, kirola hezkuntz proiektuaren baitan dagoela uste dut, eta ez zait bidezkoa iruditzen haurrek BARRENen entrenatzaile eskatu beharra izatea.

Ez dakit zeinen ardura den baina nagusion erantzukizuna da Elgoibarko neska-mutilei kirol zerbitzu ganorazkoa eskaintzea. Eta zerbitzua diodane-

an ez naiz Kiroldegiari, Mintxetari edo eskoletako instalazioei buruz bakarrik ari, instalazioak ez ezik hurrei erakutsi eta lagunduko dien entrenatzaile eta monitorea ere behar-beharrezkoak baitira.

Nork jarri behar ditu entrenatzaile edo monitorea? Nire ustetan ikastetxeek, Kirol Patronatuak eta kirol elkar-teeek hartu behar dute zeregin honen ardura. Elgoibarko neska-mutileen etorkizunaz ari gara eta gai hau ezin dugu, inolaz ere, airean zintzilik eduki.

I. E.

Agurrak beti izaten dira tristeak baina pertsona batek alde egiten duenean, beste baten etorrerak betetzen badu hark utzitako hutsunea, tristura hori zertxobait arintzen da. Oraingoan agur esan behar diogu Mikel Cornejori, baina urtebete eta erdian BARRENen egin izan duen maketatzaile lan bikainarengatik gure eskerrik beroenak eman ondoren esango diogu agur, edo hobe esan, laster arte! Mikelen ordeaz, Bea Ansola elgoibartarra etorri da BARRENera. Beari, lehendabizi ongi-etorri, eta nola ez, ondo izan gure artean.



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia.**

KEXAK

◆ Emakume batek deitu digu honako bi kexa hauek argitaratzeko:

Ermuaranbide kalean (autopistako zubia baino metro batzuk beherago) egoten diren trafiko arazoez kexatu nahi dut. Izan ere, hor dauden enpresetara joaten diren kamioiek bide erdia okupatzen dute askotan eta arriskua izaten da bertatik ibiltzen garenontzat, bai oinezkoentzat baita autoan goazenontzat ere”.

Bestalde, Txankakuako zubian umeak patinekin ibiltzen dira zubitik abantatu eta eliza parera iristen direlarik. Errosario kaletik autoan gatozenez, umeak auto azpira sartzeko bezala jaisten dira aldapa behera. Nork esan behar die umei jolas hori arriskutsua dela? Udaltzaingoak pare-parean dauka bere lokala”.

◆ Gizonezko batek Madalako parkea “negargarri” dagoela esateko deitu digu. Herriaren erdian dagoen parke batek hori baino atentzio gehiago behar duela esan digu eta erreforma batzuk egin ditzatela eskatzen dio Udalari.

◆ **Merkatu Plazatik Pilar ikastetxera bitartean doan zubia “estetikoki konpondu bai, baina gainontzean lehen baino okerrago”** laga dutela iruditzen zaio emakume bati. “Zubia polita dago baina euria egiten duenean potzuz betetzen da, ura joateko zeuden zuloak estali egin baitituzte eta lehen baino txartoago dago”.

TXALOAK

◆ “La Caixa izeneko banketxe berria zabaldu dute Errosario kalean, eta aurrezki kutxa honek euskarari eman dion tratamendua ‘txapela kentzeko modukoa’ dela iruditzen zait, kaleko errotulua euskara hutsean idatzita jarri baitute. Euskal Herriko banketxe eta aurrezki kutxei lezio ederra eman die kanpotik etorritako erakunde honek!”.



BAI, ESAN?



**Belen
Maidagan**

Maidagan dendakoa

Aurreko asteko BARRENezko publizitate orri batean herriko hainbat jantzi-dendak publizitate bitxia egin zutela ikusi genuen. Publizitate munduari buruz eta Elgoibarren dagoen erosketa giroaren inguruan berba egiteko deitu diogu **Maidagan jantzidendakoa den Beleni**.

- **Nori buruatu zitzaion *Icaro* herriko hainbat dendariren publizitateko ‘gantxoak’ izan zitekeela?**

Iaz dendari batzuk biltzen hasi ginan zapatu arratsaldeetan irekitzia erabakitzeke. Aurtan ere bilera bat ein dou eta herriko jendiari eta kanpokuari ere bai, zapatu arratsaldietan dendak irekita eongo ziala aditzera eman bihar zala ikusi gendun. Eta horrela sortu zan ‘Icaro’n figuria erabiltzeko ideia. Horrekin esan nahi doguna da Elgoibarren badaozela kultura aldetik gauza interesgarriak eta dototriak ikusteko eta konprak eitzeko aukeria ere bai.

- **Askotan eztabaidatu da publizitatearen eraginaz. Sinesten al duzue publizitatean?** - Bai, dudarik gabe. Jendeari zure dendaren berri ematen diozu eta oso hori inportantia da. BARRENez eitziaz aparte, irratixan ere ein dou publizitadia eta herriko jendiari ez ezik, kanpoko jendiari ere ezagutzera ematen diozu zure negoziuan berri.

- **Elgoibarren goitik behera jatzeko aukera badagoela diozue. Joera handia al dago oraindik ere arropa kanpoan erosteko?** - Izan leike guk erautsi diogulako jendiari kanpora juten, zapatu arratsaldeetan dendak itxita eukitzen ginuzelako. Oin gure esku dao ohitxura hori aldatzia. Jendiari herrixan erosten erakutsi bihar jako, zerbitzua, kalidadia prezio onian eta konfiantzia emanaz. Kanpoko dendetan ezin leike erropia etxera eruan probatzeko. Hamen konfiantza guztiakin ein leike hori eta erropiak defektua bada-ka dirua abonau eitzen jako. Bentaja asko ematen ditxugu.

- **Ez al da bitxia konpetentziako dendok publizitatea elkarrekin egitea?** - Dendarixok alkartu ein bihar gera, etorkizuna hor dao. Oso interesgarria da dendarixok ondo konpontzia eta elkartasun honekin jarraitzia.

ESKERTZA




1998ko irailaren 22an, 70 urte zituela hil zen
RAFAEL PEREZ HERMECHEOren sendiak,
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola
hileta elizkizunetara agertu izana.



Iberiar Penintsula kostaldetik bizikletaz

Abentura, turismoa eta kirola. Hiru arlo horiek uztartuz izugarritzko bidaia egin du Ion Asensio elgoibartarrak. Izan ere, 32 urte dituen gazte hau bizikleta hartu eta Lisboa aldera abiatu zen, Expo-a ikusi eta San Bartolome jaietara itzultzeko asmoarekin. Baina, azkenean, Iberiar Penintsula alderik alde zeharkatu du kostaldetik, lurmutur izkutu eta txikienak ere pasatuz. 5.960 kilometro egin ditu guztira 50 egunetan. Horren emaitza, liburu bat idazteko besteko apunteak eta 1.150 argazki izan dira. Hori eta 6 kilo gutxiago.



**Ionek 5.960 km.
egin ditu bizikletaz.**

Bere burua “sagitario eta oso abenturazalea” bezala definitu du. Egia esan, bidaia hau egiteko abentura izugarri gustatu behar zaizu. Abentura eta kirola. Azken batean, “nire helburua kirola egitea zen. Abuztuaren 4an ateratu zen Elgoibartik. Bizikleta 27 kiloko pisua zuten gauzekin kargatu eta Santander aldera abiatu zen. Helmuga Lisboan zuen, Expo erakusketan. Handik trenez bueltatzea zen asmoa. Ionek urtean zehar aerobic-a eta pesak egiten ditu Ibai Gimnasioan, “nahikoa prestaketa da udaran bizikleta hartu eta Portugalera iristeko”. Kontua da, Portugalen gaixorik jarri zela, “oso errepide txarrak daude, zuloz beteta, eta horren eraginez, likidoa ez nuen ondo dijeritzen. Edan nuen ura ez zidan onartzen gorputzak eta sabelean geratzen zitzaizkidan. Egun oso batez ohean egon nintzen, ura edan eta edan. Gau batean 8 litro ur edan nituen”. Abuztuaren 19an Lisboa-ara iritsi eta Expo-a ikusi zuen. Oraindik ere indar nahikoa zuen bizikletaz jarraitzeko. “Indartsu eta ilusioarekin sentitzen nintzen. Askok pentsatu eta gero, lantokira deitu eta oporrak luzatzeko eskatu nien. Horrela, bada Iberiar Penintsula osoa kostaldetik zeharkat-

zea erabaki nuen, une bakar batean ere kostaldetik ez apartatzea zen nire erronka eta helburua”.

BIRA HASTEN DA

Lisboara bitartean eta, baita gero ere, etengabean jendearekin harremanetan egon zen Ion. “Ez nintzen une batean ere bakarrik sentitu. Bidaia osoan zehar jendearekin hitz egin nuen, oso jende jatorra ezagutu dut, laguntzeko prest zegoena, nire ibilbideaz interesatu zirenak... Bidaia bakarrik egin nuen baina bakardaderik ez nuen sentitu. Askok bakardade handiagoko sentitu nuen Elgoibarrera iristean. Horrelako bidaietan oso irekia izan behar duzu, bestela gogorra baita. Bidaia honek balio izan dit, beste gauza askoren artean, Iberiar Penintsulan dagoen jendea ezagutzeko, kultura desberdinak ezagutzeko, gastronomia, paisaia...”.

Helburua penintsula kostaldetik

zeharkatzea zen, “Laredora bitartean ez nintzen kostaldetik joan ezta Doñan ere. Inguru horretan ez dago erreperiderik kostaldetik eta barnealdera sartu beharra daukazu baina ostantzean bidaia osoan ez nuen kostaldeko zirrikiturik laga ikusi gabe. Lurmutur txikienetara ere iritsi nintzen eta horrek askotan 300 kilometro gehiago egitea suposatzen zuen. Guztira, 1.500 km. gehiago egin ditut lurmutur horietara joategatik”.


SEVILLA ETA UJTOAK

Bitxikeria asko bizi izan ditu Ionek. Esate baterako, “Sevillan, Giralda ikusten nengoela, ijito batzuk etorri zitzaizkidan eta eskua irakurri zidaten. Diru aldetik egoera onean nengoela esan zidaten, abenturazalea naizela, sekulako ‘pronto’ a neukala baina haserre oso erraz pasatzen zitzaizkidan, oso irekia nintzela eta horregatik jende askok inbidia zidala... Eta gero, baita ere, ezkonduko emakume batekin abenturatxo bat izango nuela esan zidaten, ja, ja, ja... Momentuz azkenengo partea ez da bete, ja, ja, ja...”. Sevillan egon zenean Ionek ikusi zituen eskale guztiei bere plateretik jaten eman zien, “eta benetan harro nago horretaz, ze jende gehienak ez zien kasurik egiten”.

Egunean 10-12 ordu ibiltzen zen bizikletaz. Zazpi egunetik behin atsendena hartzen zuen, “halere, esate baterako Lisboan egon nintzenean, ez nuen batere deskantsatu. Hasteko, Expo-an demaseko ilarak zeuden eta dena ikusi nahi nuen egun osoa pasa nuen bate-tik bestera. Bizikletaz baino gehiago nekatu nintzen!”.

1.250 ARGAZKI

Ionek betidanik izan du argazkilaritzarekiko zaletasuna. Horregatik, bidaia egin behar duen guztietan argazki kamera sartzen du motxilan. “Iberiar Penintsula kostaldetik zeharkatu dudana bidaia honetan 1.150 argazki ateratu di-



IBILBIDEA

- 1.- Abuztuak 4 0 km. Elgoibar
- 2.- Abuztua 5 149 km. Laredo
- 3.- Abuztuak 6 92 km. Comillas
- 4.- Abuztuak 7 162 km. Candás
- 5.- Abuztuak 9 151 km. Vegadeo
- 6.- Abuztuak 10 157 km. Moeche
- 7.- Abuztuak 11 30 km. Payosaco
- 8.- Abuztuak 13 112 km. Fisterra1
- 9.- Abuztua 14 149 km. Nola
- 10.- Abuztuak 15 136 km. Combarro
- 11.- Abuztuak 16 138 km. Baiona
- 12.- Abuztuak 17 131 km. Vila do Conde
- 13.- Abuztuak 18 133 km. Gafanha da Nazare
- 14.- Abuztuak 19 143 km. S. Pedro de Moel
- 15.- Abuztuak 20 116 km. Lourinha
- 16.- Abuztuak 23 162 km. Lisboa
- 17.- Abuztua 24 141 km. Carvallal
- 18.- Abuztuak 25 155 km. Aljezur
- 19.- Abuztuak 26 154 km. Albufeira
- 20.- Abuztuak 27 124 km. Lepe
- 21.- Abuztuak 28 160 km. Aznalcázar

- 22.- Abuztuak 29 132 km. Sanlúcar de Barrameda
- 23.- Irailak 1 162 km. Barbate1.
- 24 - Irailak 2 113 km. LaLínea de la Confección
- 25.- Irailak 3 214 km. Nerja
- 26.- Irailak 4 202 km. Cabo de Gata
- 27 - Irailak 5 202 km. Mazarrón
- 28.- Irailak 6 200 km. Alicante
- 29.- Irailak 8 209 km. Valentzia
- 30.- Irailak 9 200 km. L'Aldea
- 31.- Irailak 10 198 km. Bartzelona
- 32.- Irailak 11 139 km. Palamós
- 33.- Irailak 12 100 km. Cab de Coreus
- 34.- Irailak 13 119 km. Arles
- 35.- Irailak 14 106 km. Planoles
- 36.- Irailak 17 108 km. Canillos3.
- 37.- Irailak 18 127 km. Esterra d'Àneu
- 38.- Irailak 19 111 km. Ilhan
- 39.- Irailak 20 87 km. Soular
- 40.- Irailak 21 96 km. S. Christau
- 41.- Irailak 22 108 km. Otxagabia
- 42.- Irailak 23 243 km. DonostiA

*ETAPA BAKOITZEAN ZENBAT Km. EGIN ZITUEN IKUS DAITEKE TAULAN

tut. Era guztietakoak daude: paisaiak, jendea eta baita bidean zehar hiltzen diren animaliei buruzko erreportaje grafiko bat ere. Bizikletan horrenbeste kilometro egin eta gero konturatzen zara zenbat eta zenbat animalia hiltzen den errepidean. Ez bakarrik txakurrak, animalia basati asko ere ikusi izan ditut bide bazterrean, oreinak eta antzekoak. Egia esan oso erreportaje pertsonala da argazkiak gogorrek baitira”. Argazkiaren bila joan izan da une oro Ion, “edozein irudi, une edo argi egokia iruditzen bazitzaidan, argazkia ateratzen nuen. Horrela bildu ditut hainbeste argazki. Gainera, bidaia amaitzen denean oroitzapen mordo bat ekartzeaz bat irudiak ere baldin badituzu, askoz garbiago irauten dute oroitzapen horiek”.

BIDAIA PERFECTUA

Hainbeste kilometro bizikletaz egitea benetan gogorra da, “hori bizikletaz ibiltzen den edonork uler dezake. Sarritan esfortzu fisikoa oso handia zen, baina etapa bat amaitutakoan indarrarekin banangoen, jarraitu egiten nuen, indar apurrak agortu arte. Dena exigitu diot gorputzari eta horrek asko erretzen duen arren, merezi du. Bizipen hauek ez dizkit inork kenduko”. Egia esan, egunero egunero hainbat kilometro egin eta gero arropa garbitzen zuen, iztarreri masaia eman eta egunean zehar gertatutako gauzak apuntatzen zituen. Baina ahalegin horren ondorioz bizipen aberasgarriak ekarri ditu, “oso jende jatorra ezagutu dut. Gainera, nik uste nuenaren kontra, jatorrenak Frantzian aurkitu ditut. Piriñoetatik pasa nintzenean kontrastea oso handia izan zen. Batetik, kostaldetik mendi artera pasa nintzen eta horrekin batera mendateak, euria, hotza eta txingorra iritsi ziren. Baina jendea asko ‘enroilatzan’ zen nirekin, interesa azaltzen zuten, animoak ematen zizkidaten



Goiko argazkian Ion Sevillan ikus dezakegu. Behean, berriz, kostaldeko irudi polit bat.



eta jatetxeetan, jateko eskatzen nuenaz gain, beste zerbait eskaintzen zidaten, kontuan izanik zein motako bidaia egiten ari nintzen eta osasunerako ona zela esa-

naz. Detaile asko izan zituzten frantsek. Halere, leku guztietan topatu dut jende jatorra. Esate baterako, behin mezulari lanak egin nituen. Valentzian kuadrila bat ezagutu nuen eta 300 kilometrorra bizi zen lagun bati eskutitz bat entregatzeko eskatu zidaten. Orain dela gutxi idatzi didate beraien idoloa naizela esanez, ni naizela euren Indurain handia... Helbide mordo batekin bueltatu naiz, askok eta askok nire bidaia nola bukatzen zen jakin nahi zuten eta guztiei idatziko niela agindu nien”.

LIBURU BAT IDAZTEKO LAIN

Ionek jendea animatu nahi du era honetako bidaiak egin dituzan, “badakit ez dela erraza: denbora behar da, dirua, inolako loturarik ez... Faktore horiek guztiak bat etortzea ez da erraza izaten, baina ahal duenak bizitzan behin horrelako abentura bat bizitzeko ausardia izan dezala esango nioke. Asko ikasten da eta nor bere burua ezagutzeko era ezin hobe da. Seigarren zentzua izugarri garrantzen da, demaseko intuizioa sortzen zaizu. Ni oso ziur ibili nintzen, argi dago beldurrarekin ezin dela egin horrelako bidaia bat. Behin bakarrik pasa nuen beldurra. Isabatik Otxagabiara nihoala, iluntzen hasita zegoen eta itzalek sortzen dituzten irudi faltsu horien artean izugarriko zezen erraldoia zetorrela ikusi nuen. Hura sustoa! Kontua da, azkenean baserri-tar bat zela eta nik ikusi nuen zezena gizonaren aterkiaren itzalek sortutako efekto optikoa baino ez zen!”.

Ionek ez du berriz horrelako zerbait errepikatzeke asmorik, “bidaia ahaztezina izan da baina orain beste gauza asko daude egiteko”. Elkarrizketa egin aurretik aitortu zigun liburu bat idazteko adina datu bildu dituela. Beharbada, egunen batean, Iberiar Penintsula kostaldetik bizikletaz zeharkatuz 5.960 km. egin dituen gazte honen bizipenak liburu mardul batean bilduak irakurtzeko aukera izango dugu. Batek daki!

Herrian ala erbestean erosten duzu arropa?



TXONI JUBETE

60 urte, etxeoandrea

Batzuetan kanpora joaten naiz, Elgoibarren nere neurriko gauzarik topatzen ez dudalako. Gainera, ez zait gustatzen herriko beste batek nik erositako arropa bera izatea.



DORI LÓPEZ

36 urte, etxeko langilea

Orain Elgoibarren ari naiz lanean eta parean tokatu zaidalako erosi izan dut erropa. Dena den, Bilbora edo Donostiara joatea gustatzen zait, aukera handia baitago.



NEREA ARENAS

27 urte, ingeles irakaslea

Lehen sarriago erosten nuen kanpoan baina azkenaldian denda asko ireki dituzte herrian eta aukera handia dago. Gainera, erosoagoa da bertan erostea.



JABIER ETXEBARRIA

56 urte, espezialista

Danerakua. Segun eta ze gauza dan. Deporterako erropia beti herrixan baina gainontzian badakagu kanpora juteko ohitxuria. Zergatik erosten doun kanpuan? Ez dakitx.



MARISA DÍEZ

50 urte, etxeoandrea

Denetik. Zapatuetan egun pasa joaten bagara zerbait erosteko aprobetxatzen dugu baina herrian ere erosten dugu, batez ere momentuan behar duguna.



JUANJO GURRUTXAGA

41 urte, komertziala

Erosketak beti egiten ditut herrian, dirua bertan gastatzea inportantea da. Ez dut sekula kanpora joateko ohiturarik izan herrian gustuko dudana topatu izan dudalako beti.



BARREN *astekarian*

PUBLIZISTA behar da

ESKATZEN DA

- Ikasketa ertainak
- Harremanetarako dohaina

BALORATUKO DA

- Marketing/publizitate ezagutzak
- Komertzial lanetan esperientzia
- Autoa edukitzea

ESKAINTZEN DA

- Urtebeterako kontratua (soldata finkoa + komisioak)

Izena emateko azken eguna: URRIAREN 23a (ostirala)

Izena emateko eta informazio gehiago: Elgoibarko Izarra R. E. Ubitarte 4, behea (Tel. 943 74 16 26)

● **Euskal****Herritarrok-en zerbitzua posta bidez botatzeko**

Urriaren 25eko hauteskundeak direla-eta, 'Euskal Herritarrok' Hauteskunde Plataformak posta bidezko botoaren tramitazioa errazteko informazio zerbitzua jarri du martxan herritik kanpo edo gaixo daudeneztat. Jadanik epea zabalik dago, botoa emateko epea urriaren 15ean amaituko delarik. Interesaturik dagoen edozein pertsonak egunero arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara Kimetz Elkartera jo dezake edo 943 74 07 37 zenbakira deitu, informazioa eskatzeko edo zalantzak argitzeko. Azken unera arte ez itxarrotea gomendatzen da.

● **'Konti'ri buruzko ipuin lehiaketa**

Deba Beheko Mankomunitateak eskualdeko Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako eta DBHko 1. mailako ikasleei zuzenduriko ipuin lehiaketa antolatu du. Hondakinen bilketa selektiboa edo ingurugiroarein lotutako istorio bat kontatu behar da, 2 orrialdetan gehienez, protagonista, Konti, Deba Beheko Mankomunitateko maskota izango delarik. Lanak ikastetxe bakoitzeko irakasleari eman behar zaizkio azaroaren 30a baino lehen. Ipuinik onenak musika katea jasoko du. Bigarrenari eta hirugarrenari mendiko bizikleta bana oparituko zaie eta hurrengo hiru sailkatuei motxila bana.

Iñaxio Oliveri IMHri ISO 9001 kalitate agiria eman zitzaion ekitaldian izan zen

IMH, lanbide heziketako "zentro erakusgarria" dela esan zuen

Elgoibarko Erreminta Makinaren Institutuak jaso duen ISO 9001 kalitate agiria emateko ekitaldi ofiziala asteazken goizean egin zen ikastetxean bertan. AENOR erakundeak ematen duen kalitate agiria jasotzen duen lehenengo lanbide heziketa zentroa da IMH. Ekitaldian Eusko Jaurlaritzako Inaxio Oliveri hezkuntza sailburua, Guillermo Garate alkatea, Alberto Ortueta AFMko zuzendaria, Tomas Orbea AENOR-eko arduraduna eta ikastetxeko zuzendaria den Jose Rejo izan ziren. Argazkian IMHko ordezkariak agiria jasotzen duen unea Oliveriren eskutik. Agiri honek 'IQnet' izena dauka nazioartean eta AENOR-eko ordezkariaren esanetan, "kalitate osorako bidean, aurrerapauso bat gehiago da IMHk oraingoan eman duena". Iñaxio Oliveri eta Alberto Ortueta AFMko zuzendaria bat eto-



rri ziren Elgoibarko ikastetxe honen apustu serio eta profesionalaren garrantzia azpimarratzerakoan. "Enpresa munduari egokitzeko ahaleginean, bide onetik doaz". Oliverik gaineratu zuenez, "Jaurlaritzak duen lanbide heziketa hobetzeko planaren barruan, IMH ikastetxea guztiontzako erueda da eta Estatuko lanbide zentro onenen artean dagoela esan dezaket".

275.000 pta. bildu ziren Artazoren aldeko artzai-txakurren txapelketan

Jon Osoro auzotarrak irabazi zuen puntu bateko aldearekin

Ikuslego ugari, artzainen lan polita eta antolakuntza txukuna izan ziren aurreko domekan Sallobenten jokatu zen Artzain txakurren txapelketako aipagarriena. DEBEMEN Elkartek, Elgoibarko Udalak eta Sallobente Elkartek izan ziren antolatzaileak eta euren esanetan, "oso pozik gaude bai jendearen erantzunarekin baita gauzak ondo irten zirelako ere". Sarreran batutako dirua, 275.000 pta. hain zuzen, Artazo baserrikoei

emango zaie.

Txapelketari dagokionean, lehenengo bi postuetan lehia estua izan zen. Jon Osoro auzotarrak eta 'Pintxo' txakurrak puntu bakarreko alde lortu zuten bigarren sailkatua izan zen Mikel Garaiar oiartzundarrarekiko. Hirugarren lekuan San Migel bailarako Jose Antonio Arrillaga eta 'Txiki' txakurra sailkatu ziren. Norgehiagoka 16:30ean hasi zen. 12 artzaik hartu zuten parte. Lehendabizi, txakurrak makilekin markatutako bide batetik pasa behar zuen eta ondoren, artaldea ezker edo eskuma aldeko hesian sartu. Lehen erronda honen ostean 6 artzain sailkatu ziren. Hurrengo lana artaldea erdiko hesian sartu eta berriz ateratzea izan zen. Bigarren errondarako sailkatu ziren 6 artzainetatik 3k bakarrik lortu zuten artaldea hesiaren barruan sartu eta berriz ateratzea: Jon Osorok, Mikel Garaiarrek eta Jose Antonio Arrilagak hain zuzen.



'Salbea' eta haurrentzako ekitaldiak nagusi Errosario kaleko jaietan

Aurreko asteburuan hasi eta Errosarioko Amabirjinaren Egunean, asteazkenean, amaitu ziren Errosario kaleko jaiak Amabirjinaren oinetan errezatu zen Salbearekin. Ohienez, ekitaldi honek erakarri zuen jendetza handiena. Besterik ere izan da jai hauetan, esaterako, buruhandi eta erraldoien kalejirak, haurrentzako jolasak eta pasa den zapatu goizean jokatu ziren pilota partiduak.



Aitor Zabala

Osasun Pastoralekoak Guggenheim museoan

Elgoibarko Osasun Pastoraleko 35 kidek urteroko txangoa egin zuten irailean, oraingoan Bilboko Guggenheim museora bisita. Artxandan bazkaldu eta museoa ikusi zuten, "atentzioa deitu zigun batez ere kanpo aldean dagoen Poppy txakurrak". Txinako erakusketatik ikusteaz bat, "harrituta geratu ginen museoa zein ondo dagoen moldatuta elbarriak ibili ahal izateko. Kontuan izanda zenbait elbarri ere bazirela gurekin, inongo arazorik gabe ibili ginen batera eta bestera. Museoa diseinatu zutenek txalo handia merezi dute".




● 8 milioi batu dira Vickyren aldeko kanpainan

Vickyren Lagunek bidalitako idatzi batean esaten dutenez, "jasotako laguntzak eta zozketetan bildutako dirua batuz gero, 8 milioi pta. lortu dira. Errifen salmentarekin 3,2 milioi pta. batu ziren eta gainontzekoa donazioak izan dira. Joan den uztailaren 24an egin zen zozketako zenbaki irabazlea agertu ezenez, beste zenbaki batzuk atera dira urriaren 30ra arteko epea izango delarik saria jasotzeko. Lehenengo zenbakia aterako ez balitz hurrengo izango litzateke balekoa, horrela, azken zenbakira arte: 4.763, 1.996, 19.242, 19.959, 5.297, 5.701, 16.432, 16.430, 8.189 eta 13.787.

Bestalde, Vickyren Lagunek azaldu dutenez, dagoeneko Vicky makuluekin ibiltzeko gai da, "poliki-poliki bada ere, eta beraz, guztiok eman duzuen laguntzak merezi izan duela esan dezakegu inongo zalantzarik gabe".

● EGA ikastaroa AEK euskaltegian

AEK euskaltegiak EGA titulu ateratzeko ikastaroa antolatu du goizeko 9:00etatik 11:00etara bitarteko klase orduetan. Titulu ateratzeko azterketak prestatu nahi dituzten guztiei aditza eman nahi diete izena emateko aukera badagoela oraindik. Ikasle eta langabetuek matrikula erdia baino ez dute ordaindu behar-ko Udalaren dirulaguntzei esker.



Kukubiltxoren saio polita

'Euskararen Transmisio Kanpaina' ren barruan eta Udala Euskara Batzordearen eskutik, joan den zapatuan Kukubiltxoren 'Kukubel' txotxongilo ikuskizuna izan zen Herriko Antzokian. Antolatzaileek esan digutenez, "saio polita eta ezberdina izateaz aparte, oso arrakastatsua izan zen. 250 lagunetik gora egon ziren txotxongilo ikuskizuna ikusten, tartean haurrak eta nagusiak. Gainera, azpimarratzekoa da hurrek parte ere hartu zutela". Kukubiltxoren lan honetan Euskal Herriko hainbat istorio kontatzen dira, horretarako panpina handiez eta txotxongilo txikiez baliatzen direlarik.



1999ko GIDA

Gure gidan Elgoibar eta Mendaroko

KOMERTZIALA

telefono komertzial guztiak aterako ditugu.

prestatzen ari

Herritarrentzat gida erabilgarriena,

gara Elgoibar eta

erosoena eta errazena. Guri esker beti egongo zara zure bezeroen eskura, 365

Mendaroko telefono komertzial

egun zabalik, 24 ordu egunean. Zure negozioaren publizitatea egin nahi

guztiek. 1998ko Gidan agertu

baduzu dei ieizaguzu lehenbailehen eta aukeratu zer den komeni zaizuna:

ez bazinen edo daturen bat oker

izena negritaz ipini, publizitate moduluak,... aukera guztiak zure esku.

bazegoen deitu lehenbailehen.

943 74 37 04

ARRREN

LIko eta DBHko IKASLEEKIN EGINDAKO 47. GEHIGARRIA




Pilar ikastetxeko 6.mailako ikasleak Butroiko gazteluan izan ziren duela zenbait hilabete. Erretratuan ikus ditzakegu Oteizak egindako eskulturaren aurrean. Bistan da eguraldi zoragarria egin zuela eta egun bikaina pasa zuten gauzak ikusi, paisaiaz disfrutatu eta lagunartean jolasten.

Tristeza

Kalean lagun batekin topo egiten du Josebak eta esaten dio:

- Baina Josu, noiz erosi duk auto berria?
- Auto berria? Hau betikoa duk, ordea!
- Nola izango duk betikoa? Lehengo zuria huan, eta hau berriz, gorria!
- Bai zera! Gertatzen duk urteak dituela eta orain dexente berotzen dela!



Jakitunen eskutik

Urtebetetze festa ospatzeko ideiak

Laster zure seme-alabak urteak beteko ditu eta ohitura daukazue etxean familiakoekin ez ezik, lagunekin ere jaia antolatuz ospatzeko. Jarraian hainbat ideia emango dizkizugu egun hori ahaztezina izan dadin guztientzat.

Dagoeneko bada garaia zure seme edo alabak prestakuntzetan laguntzeko. Gainera, ziur ilusioa egiten diola jolasak aukeratzeak, mahaia jartzeak eta zein lagun gonbidatu nahi dituen esateak. Ahal bada hiru haur bakoitzeko heldu bat egotea komeni da, bestela demaseko iskanbila sor daiteke.

Kontuan izan behar duzu, baita ere, zure etxean zenbat leku daukazu festa antolatzeko eta horren araberrako ekintzak antolatu.

Jaia ahaztezina izan dadin orijinala ere izan behar da. Horretarako, esate baterako, jaia baino bizpahiru egun lehenago gonbidatu dituzun haurren gurasoekin hitz egin eta haiekin adostasun batera iritsiz, esan haurrak mozorrotuta edo kolore jakin batez jantzita azal daitezela.

Jaia hasten denean jolasak behar-beharrezkoak dira. Hona hemen ideia batzuk:

- Kartoizko kaxa bat hartu eta sari bat gorde bertan. Jarraian, haur bati begiak itxi eta koilara bat eman. Haurrak koilaraz markatu behar du norabidea eta gainontzeko adiskideek esan behar diote zuzen edo oker dabilen "hotza" eta "beroa" hitzak erabiliz.

- Haurrek asko atsegin duten beste jolas bat mozo-roena da. Presta ezazu poltsa bat arropa eta osagarriekin. Gero, haur guztiak ilaran jar daitezela. Lehenengoa dagoenak poltsatik zerbait hartu, mozo-rotu eta gainontzekoen aurrean abestu eta dantzatu ondoren, ilaran bigarren dagoenaren txanda izango da.

- Asko gustatzen zaien beste jolas bat da haur guztiak korroan eseri eta zuk aurrez prestatutako plastikozko pakete bat eskutik eskura pasatzea. Musika jarri eta amaitzean paketea eskuetan duen haurrak barruan dagoen sorpresatxo eskuratuko du.

- Aulkiak erabiliz ere benetan jolas entretenigarriak antola daitezke. Adibidez, partehartzaileak baino aulki bat gutxiago korroan jarri eta haur guztiak dantza dezatela aulkien atzetik pasatuz musikaren erritmora. Musika ustegabean amaituko da eta aulkirik gabe geratzen dena kanpora doa. Ondoren, aulki bat gehiago kendu eta horrela azkenean bi partehartzaile eta aulki bakarra geratzen den arte. Aulkian lehenago esertzen dena izango da irabazlea.

- Beste hainbat eta hainbat gauza egin daitezke eta ezer antolatu gabe ere, jolasak ateraz, haurrek ondo baino hobeto pasatzen dute edozein festatan.

Zer iritzi daukazu*abortoa*.....ri buruz?



Ez badu umerik nahi, ez ezkontzea .

Ez nago ados abortoarekin.

AINHOA BALZOLA, 8 urte



Batzuk ezkondu eta lan asko dutenez ez dute denborarik eta umea ez dute nahi. Abortoa ez dut ondo ikusten.

LAURA ODRIUZOLA, 9 urte.



Asko hitz egin da eta ez dut uste haimbeste garrantzia eman behar zaionik. Bakoitzak nahi duena egin dezala.


IKER ASTIGARRAGA, 13 urte



LAXE
CERBIÑO
8 urte

Galde debalde

- 1- Zer egingo zenuke lehendakaria bazina?
- 2- Zein herritan bizi nahi zenuke?
- 3- Nori esango zenioke "maite zaitut"?
- 4- Kirolen bat egiten al duzu?
- 5- Nolakoa da zure printze/printsesa urdina?
- 6- Zein opari jaso nahi zenuke?
- 7- Ba al dakizu zerbait kozinatzen?
- 8- Zer da oheratu aurretik egiten duun azken gauza?



GORKA
GARATE
13 urte

- 1- "Euyrodisney" bezelako parke bat.
- 2- Elgoibar gustatzen jata.
- 3- Inori.
- 4- Ez, sokasaltuan jolastu.
- 5- Ipuinetan bakarrik daude..
- 6- Ordenadore bat.
- 7- Ez, baina arroza itxen jakitia gustauko jatan.
- 8- Pijamia jantzi eta hortzak garbitu.
- 9- Bainua, espuma askokin.

- 1- Agindu.
- 2- Laponian, eskimala izateko.
- 3- Asko gustatzen jatan neska bati.
- 4- Bai, eskubaloia.
- 5- Neska normal bat imajinatzen dut.
- 6- Edozein opari beti jasotzen da gustora.
- 7- Patata tortila bakarrik.
- 8- Lentilak kendu.
- 9- Bainua, baina normalian dutxatu egiten naiz.

Nor da *Olano*.....?

ENAUT IZAGIRRE 7 URTE



Abraham Olano oso famatua da Euskal Herrian eta txirringularitzan karrera eta etapa asko irabazten ditu.

BEÑAT ARRIZABALAGA 6 urte



Kamiseta gorria daukan ziklistia da.

ENEKO ITURBE 8 URTE



Olano oso ona da txirringularitzan. Gorantziak berarentzat. Aupa Abraham Olano!

JONE FEIJOO 10 urte



Olano txirringulari bat da. Oso ona da, niretzat onena.

MIKEL ANAKABE 6 URTE



Lehen Indurain zena, orain Olano da.


SANDRA MONTES 10 urte



Anoetako txirringulari famatua da. Aurten Espainiako bira irabazi du. Banesto taldekoa da.

Denborapasak: ezetz asmatu!

1. Zer da hau?



2. Zer galdetu diegu?




LAURA FERNANDEZ
8 urte

"Zortzi, ze ikastea gustatzen zait. Gero lana topatu bihar da dirua irabazteko eta zaharraua zerez lehenoz hiltzen zera".

IOKIN ZUBIAURRE
11 urte

"Hiru, ze txikitan jendiak kaso itxen dizu eta esaten dizu zelako majua eta politxa zeran. Zenbat eta urte gehixo, orduan eta gehixo ikasi bihar, lana...".



3. Binan binan berdinak dira.

1 →	8 →
2 →	9 →
3 →	10 →
4 →	11 →
5 →	12 →

4. Asmakizunak

— Mendian berde zakuan beltza sutan gorri.
Zer da hori?

— Bi ahizpa dira, bata trebea traketsa bestea, biak langileak.
Zer izan ote dira?

— Eguzkitan makulu, euritan babesleku.

Jose Antonio Zuazubizkarrek 69 urte ditu. Elgoibartar honek bizitza osoan kirol asko egin izan du baina gaur egun antigimnasia irakaslea da. Gure artera ekarri dugu antigimnasiaren esanahiaz hitz egin diezagun. Izan ere, pentsa daitekeenaren aurka, hitz horrek ez du gimnasiaren kontrako zerbañ denik esan nahi. Jose Antoniok azaldu digunez, antigimnasiak gorputzeko oreka bilatzen laguntzen du.

“Antigimnasia, gorputzaren oreka bilatzea da”

– Zer da antigimnasia?

- Denboraren poderioz, adinaren poderioz giharreak, artikulazioak tentsau eta bihurritxu itxen dia, gogortu. Ondorioz, mina hasten da. Gimnasiak ez dau kontuan hartzen tentsio hori, min hori, antigimnasiak, aldiz, bai. Hau da, lehenik eta behin, antigimnasiaren bidez, gorputzaren oreka bilau bihar dou eta urtietan zihar, postura desegokiak erabiltzian ondorioz, guztiz tentsatuak ditzugun giharre eta artikulazioak zuzendu bihar ditzugu. Gero, oreka hori lortutakoan, gimnasia itxen hasi ahal izango gera, beti ere kontuan eukitxa edonork ezin dabala edozein motako gimnasia in.

– Eta nola lortzen da oreka hori?

- Min guztien jatorria oinetan dago. Urteetan ze-

har tendentzia izugarria daukagu oinak kanporantz zabaltzeko eta gorputzaren pisua alde batera juten da zuzenian. Oinetatik belau-netara dixe eta belaunetatik gerrira. Hori guztia bizkarrezurarekin lotuta dao, beraz, ezinbestekua da oinetatik hastea gainontzekoa zuzentzeko. Egiten dogun lehen ariketa, oinhutsik jarri eta bakoitzak bere oinetara begiratzea da eta gero, oinak puntu desberdinetan ikutuz, mina nun daukagun konturatzen gera.

– Posible al da erabat zuzentzea?

- Umetan hasiz gero, posible da. Gero, erabat zuzentzen ez bada ere, gutxienez hobetu leike eta beti da komenigarria gimnasiakin batera konpagnatzia.

– Nola izan zenuen antigimnasiaren berri?

- Kasualitatez izan zan. Etxian nauala, antigimnasiari buruzko liburu bat zakagula konturatu nitzan eta interesantia iruditxu jatanez irakurtzen hasi nitzan. Gero, autore berdinan beste liburu bat erosi eta irakurri naban eta nere kontura ikasi eta gero, Eibarren hasi nitzan irakasle batekin.

– Antigimnasiaren atzean filosofia bat al dago?

- Bai. Azken batian, gure barruan dao mugimendua eta mina, baina baitxa zuzentzeko gaitxasuna ere. Umiek hanka okerrak dakenian plan-tilak ipintzen jakue eta hori ez da soluziua, oina zuzendu eta ondo ibiltzen erakutsi bihar jako. Eta hori posible da. Nik yoga, arnasketa ariketak eta holakuak ere in izan ditzut eta danak hari beretik datoz. Hala ere, gauza hauetan oso konstantia izan bihar zera eta emaitzak epe luzera igartzen dia eta bizi geran gizarte honetan dana nahi dou segitxuan, eta injekzio batekin sendatzen bagera, hobe. Ez gera konturatzen soluzio asko gure barruan daudela.

– Nabari al duzu eragirik?

- Horixe baietz! Garai batian, mendixan ibili eta gero belaunetan mina igartzen naban. Zahartzen hasitxa nauala uste naban baina antigimnasiari esker, ez dot minik euki inundi inora.


– Norentzat da gomendagarria?

- Edozeinentzat. Batez ere 38 urtetik gorakuak etortzen dia eta jubilauekin ere in izan dot, horregatik, jende askok usten dau nagusixentzat dala, baina zenbat eta lehen hasi, orduan eta emaitza hobiak lortzen dia.

J. ANTONIO ZUAZUBIZ

BESTEAK ESANA

“Dedikazio handia eskaintzen dio anti-gimnasiari eta nabari da atsegin duela eta informatua dagoela. Beti prest dago laguntzeko”. GLORIA SANTIAGO, ikaslea.





Jose Luis Gonzalez

3⁴ urteko futbol atezain hau Jerez de la Fronteran (Andaluzia) bizi da. Futbolaria denez, handik hona ibiltzera ohituta dago. “15 urte-

rekin Real Sociedad taldean hasi nintzen. 27rekin Valentziara joateko aukera suertatu zitzaidan”. Hiru denboraldi egin zituen bertan. Valentziarekin kontratua amaitu eta urtebetez egon zen Valladolideko taldean. Ondoren, beste urtebete egin zuen Marbellan eta azkenik, Jerez de la Fronterako futbol taldean amaitu zuen. “Aurten hirugarren denboraldia izango da Jerezen. Iaz jaitsi egin ginenez, aurten 2.B mailan ari gara baina ez gaude Haundiren talde berean, hortaz, ez dut uste elkarren aurka jokatzeko aukera izango dugunik. Igoerako fasera helduko balira agian bai”. Jose Luis-ek beste urtebeterako kontratua dauka Jerezen, “gainera, oso hiri atsegina da, taldekideen artean oso giro ona dugu”. Emaztea Arrasatekoa da eta Gabonetan eta udan baino ez dute etortzeko aukera izaten. “Joaten garen guztietan Arrasateko edo Elgoibarko familia bisitatzeraz joaten gara. Lagunak ikusteko aukera handirik ez dut izaten”. Oraindik ez dakite torkizunean itzuliko diren ala ez baina “printzipioz Jerezen geratzeko asmoa dugu, oso gustura bizi baikara bertan”.



VIAJES **BILBAO EXPRESS** B. SARRA

**bidaia agentziak
babestutako atala**

Foruen plaza, 3
Tel: 943 74 39 12

Teodoro Garate Badiola

(1914-1940)



- 1914ko abenduaren 28an jaio zen San Frantzisko kalean.
- 3 anai-arreba ziren, zaharrena bera.
- Eskola publikoetan ibili zen, eta ondoren Don Erasmoren eskolan.
- Txikitatik kirol zaletu handia zen, esku pilotan jokatzeko gogoko zuen batez ere.
- Eskopeten kaxak egiten ikasi zuen Romualdo Leiaristirekin. Zenbait astetan 3 egun baino ez zituen lan egiten, lan gutxi baitzegoen.
- ‘Majestad’ izeneko taberna eduki zuen San Frantzisko kalean. Fama handiko taberna izan zen herrian zein erbestean. Bezero asko zituen, batez ere jai egunetan Lerungo zelai zaharrera futboleko jokatzera etortzen ziren eibartarrak.
- Beranduago, Estarta y Ecnarro lantegia militarizatu zutenean, bertan hasi zen lanean.
- 1940ko otsailaren 3an ezkondu zen Loreto Mendikuterekin eta Maritxu izeneko neska eduki zuten.
- Gogokoa zuen mendian ibiltzea eta sarritan joaten zen kuadrilarekin mendira. Irakurtzea gustatzen zitzaion eta familia giroko gizona zen.
- Teodoro elgoibartarra zen goitik behera. Oso ezaguna zen herrian, irribartsua eta oso altua zenez itxura ederrekoa zen.
- Bizimoduak, eskatu gabe ekartzen dituzte us-tekabeko nahigabeak. Elgoibar eta Eibar taldeen arteko futbol partidua ikusteko sarrera erosi zuen bezperan, ilusioz beteta. Baina gaitz baten ostean hil zen egun horretan bertan, alaba ezagutu gabe, 26 urte baino ez zituenean. 1940ko irailaren 15a zen.

Juanito Gorostiza

Lanbroa

Pedro Muguruza 5
Tel: 943 74 08 06
20870 ELGOIBAR

**KAROBI
TABERNA**

ELGOIBAR

Tel. 943 74 06 37
San Frantzisko, 37



A

Gemma tak eka-
agertzen
onostiako
in, 'Con-
izeneko
artu zuten

Elgoibarko musika taldekoak dira. Honez gero jakingo duzue 'Expresión Sonora' taldeaz ari garela, gero *Koska* taldea izango zena. Jakin dugunez, elgoibartarrak ondotxo moldatu ziren lehiaketan, lehenengo saria irabazi baitzuten.

Ezkerreko aldetik hasita, eskenatoki gainean azaltzen direnak **Gabi Agirre**, **Alfonso Guilló**, **Patxi García** eta **Luis M. Arakistain** dira.



I. URTEURRENA

1997ko irailaren 28an, 84 urte zituela hil zen **KATALINA IRIONDO SODUPE**ren oroimenez **URTEURRENEKO MEZA** izango da Madalako elizan larunbatean, hilak 17, arratsaldeko 19:30ean. Joaten zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.




ESKERTZA

1998ko irailaren 15ean, 82 urte zituela hil zen **INAZIO BEREZIARTUA ARANBERRI**ren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



"Nire txakurra ez nuke sekula salduko"



David Conde

- **Adina: 24 urte**
- **Zer egiten duzu ehizatutakoarekin?** Etxean jan edo lagunekin bazkaria egin.
- **Zenbat eskopeta dituzu?** Hiru. Neurrira egindako Arrieta etxeko bat da gehien erabiltzen dudana. Paralela bat eta repetidora ere badaukat baina gutxi erabiltzen ditut.
- **Jateko txoririk goxoen?** Mendiko faisaiak da jan dudarik goxoen. Ehizatzeke, berriz, eper gorria bezalakorik ez dago.

- **Eskualdeko Ehiza Xeheko Txapelketan izan zinen domekan. Zer moduz?** - Ez nuen zortetik izan, gutxi ezagutzen dudan mendia da eta. Inportantea izaten da terrena ondo ezagutzea, horrela badakizu gutxi gorabehera faisaiak non askatuko dituzten. Elgoibarren, berriz, irabazi egin nuen, leku ezaguna izateak lagundu egiten baitu.

- **'Nela' txakurrarekin ibili zinen Elgoibarren. Elgetara, berriz, beste bat eraman zenuen.** - Hobe izango zelakoan aitak ibiltzen duen txakurrarekin joan nintzen. Faisaietarako egokiagoa da, baina forma galtuta dauka. Elgetan erritmo bizian ehizatzen da eta txakurra gehiegi nekatu zen.

- **Alde handia izaten da txakur batetik bestera?** - Bai. Elgetan erabili nuena oso ondo moldatzen da eperretan eta galeperretan, baina motelagoa da. 'Nela' Patxi Arriolaren 'Dalo' txakurraren iloba da, oilagorretako txapeldunen kastakoa. Lau urte eta erdi ditu eta askoz bizkorragoa da, arina, korrika ugari egiten du, txoria urrutira usaintzeko gaitasuna dauka...

- **Pedegree-a garrantzitsua omen da.** - Txakurra arrazakoa dela ziurtatzen du baina ez dago garantiarik. Kumeak saltzerakoan edo kruzatzerakoan gehiago kotizatzen da. Hala ere, pedegree-rik gabeko txakurra ere ona atera daiteke.

- **Txakurra saltzea eskainiko babilizute...** - Ez nuke sekula salduko. Kumeak izango balitu, horiek saltzeko prest egongo nintzateke, bestela ez.

Txikitatik ezagutzen dut; askotan ehi-zatu dugu elkarrekin. Gainera, orain dago adinik onenean... ezin dut saldu.

- **Kotoa ere baduzue.** - Aita Palentziakoa da eta bertako herri batean eperren koto bat dago. Hango semea bazara edo bertako batekin ezkonduakoa, ehi-zatzeko aukera ematen dizute. Semeen semeek ezin genuen ehizatu baina azkenean lortu genuen guk ere aukera izatea.

- **Ehiza kirola dela esango zenuke?** - Ehiztariak mendira joaten gara, korrika ugari egiten dugu, txakurra entrenatu behar da forman egoteko,... 'Monterias' deitzen direnak, adibidez, basakeria iruditzen zaizkit. Postu batean jarri eta basurdeak edo oreinak pasatzen direnean tiro egitea ez zait gustatzen. Txakurrarekin ehizatzea dut gozoko.

- **Zer dauka ehizak gizonetakoak bakarrik erakartzeko?** - Ezagutzen dut emakume bat edo beste ehizan ibiltzen direnak baina normalean ehiztarien emazteak izaten dira. Giroakera-karrikakoak dira batez ere.

- **Ehizaz aparte, futbolearen ere bazabiltza.** - Pedruskon. Duela bi urte futbolearen hasteko erabakia hartu genuen. Laz igotzeko aukera izan genuen eta aurten hirugarren denboraldia da. Plan teamendua serioagoa da orain. Jende asko joan eta berriak sartzen dira. Pedruskori esker herriko jendeak futbolearen jokatzeko aukera dauka.

- **Ehiza ala futbola?** - Lehenengo ehiztaria naiz eta gero futbolaria. Baina batek ez du bestea kentzen.

KIROL ALBISTEAK

● Hasi da judo denboraldia Ibaikoentzat

Joan den larunbatean, irailak 26, jokatu zuten Ibai Kirol Elkarteko judoek denboraldiko lehen torneo ofiziala Oiartzungo kiroldegian. Elkarteko 3 ikasle aurkeztu ziren: Josu Idiakez (73 kg.), Xabier González (55 kg. arte) eta Egoitz Mora (90 kg. arte). Partehartzaileak Euskadiko eta Cantabriako klubetakoak ziren, guztira 90 judoka aritu zirelarik. Elgoibartarrek 2 domina eta 4. postu bat lortu zituzten: Egoitzek urrea, Xabi Gonzálezek brontzea eta Josu Idiakezek 4. postua. Bestalde, aipagarria da Egoitz Mora Espainiako selekzioarako deitu dutela, 17 urtez azpikoetan. Egoitz errendimendu handiko zentro batera joango da Madrilén, eta urrian jokatu den Euskadiko Txapelketarako eta azaroan egingo den Espainiako Txapelketarako prestatuko da.

● Sevillana ikastaroa urriaren 17an hasiko da

Udal Kirol Patronatuak Sevillana ikastaroa antolatu du urriaren 17an hasita. Klaseak larunbat goizez izango dira goizeko 10:00etatik 11:00etara bitartean. Ikastaroak hilabeteko iraupena izango du. Prezioak honako hauek dira: Patronatuko bazkideak direnentzat 3.500 pta. eta bazkide ez direnentzat 4.500 pta. Izena emateko Olaizaga Kiroldegira joan edo 943 74 44 15 zenbakira deitu.

Eskubaloia, 98/99 denboraldia
Kadete eta Jubenil neskek

Kadeteak:



Pagoaga Elgoibar. Atzean, ezkerretik hasita: Igor Lizarralde entrenatzailea, Itziar Gerrikabeitia, Edurne Juaristi, Iraia Silva, Estitxu Perea, Nerea Lendinez, Maite Arenal, Itziar Leiaristi eta Ainhoa González. Makurtuta: Sare Gurrutxaga, Maria Bilbatua, Maite Uriarte, Ainara Ladrón, Julia Fernández, Nere Aranberri, Ainhoa Uriarte, Amaia Polo, Begoña Merino eta Oihana Apellaniz.

Jubenilak:



Unceta Elgoibar. Atzean, ezkerretik hasita: Jose Peñaranda entrenatzailea, Leire Agirrebeña, Ibona Loiola, Anahi de la Cruz, Miren Beitia, Ane Garmendia, Erika Etxabe eta Ales Arrieta entrenatzailea. Makurtuta: Izaskun Sarriugarte, Lur izagierre, Lorea Gabilliondo, Estitxu Astigarraga, Madalen Bergara eta Andrea Iriondo.

Bai jubenil neskek bai kadete neskek joan den zapatuan, hilak 3, eman zioten hasiera 98/99ko ligari. Partidu bana jokatu dute eta asteburuan bigarren zita izango dute. Igor Lizarralde kadeteen entrenatzaileak esan digunez, "bi taldeen asmo nagusia hiru lehenengo postuetan geratzea da".

EMAITZAK

Futbola

Haundi 0 - Valladolid 1
 Zarautz 2 - Elgoibar 4 (1. erreg.)
 Zestoa 4 - Pedrusko 1 (2. erreg.)
 Añorga 5 - Elgoibar 2 (L. N. jub.)
 Elgoibar 2 - Mundaiz 1 (1. jub.)
 Elgoibar 1 - Aurrera 3 (Kad.)
 Elgoibar 0 - S. Herrera (Inf.)
 Zarautz 0 - Elgoibar 0 (Neskak)

Futbitoa

Kunta Kinte 4 - Berrogei Duro 2
 Spartak Braga 2 - PSK 6
 Menisko 1 - Aide Globun 0
 Los Peñascos 4 - Aizkorak Mendibil 2
 Lojantzi 7 - Los Herminios 2

Areto Futbola

Ocaso Seguros 1 - Zur Ta Lur Elgoibar 4 (Auton.)
 Autos. Beraun 3 - Zur Ta Lur Elgoibar 1 (1. maila)

Idarraga Kafeak 2. saria

Haundiko jokalaririk erregularrena 98/99
JOKALARIA PUNTUAK

1- Eneko	15
2- Beitia	13
3- Aitor Trebiño	9
4- Txasio	7
5- Igor	7
6- Iker Leonardo	6
7- G. Leonardo	5
8- Loren	5
9- Elkoro	4
10- Madina	3
11- Caro	3
12- Muguza	3

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 10
 17:00 Elgoibar - Ordizia (1. erreg.)
 Igandea, 11
 16:30 Elgoibar - Mutriku (Neskak)

Eskubaloia, Kiroldegian

16:00 Elgoibar - Bermeo (Kad. nes.)
 17:30 Elgoibar - Bermeo (Jub. nes.)
 19:00 Elgoibar - Aurrera (Senior nes.)

ELENA
 ileapaindegia
 Depilazio Elektrikoa
 San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

Mandiola S.L. Egurrak
 Domingo Arrizabalaga
 SALEROSKETA
 BASOEN MOZKETA
 Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 909 53 23 83




2021

Elgoibarko V. Komiki Jardunaldia antolatuta ditu Kokoe Komiki Elkarteak

Hilaren 16tik 25era bitartean, erakusketa, pelikulak eta kontzertua izango dira.

Andele!!

Zinea eta musikaren arteko harremanak betidanik izan dira oso estuak, zineak betidanik eskuartu baitu musikaren errepideetan. Gauza gehienetan bezala, alderantziz ere gertatzen da, filme imajinarioak sortzen dituzten musika ere egiten da. Mexikar muga kokatutako filme batetik ateratako musika egiten du aste honetan dakarkizuegun taldeak. California eta Mexikoren artean dagoen herri batetik atera dute Giant Sand taldeko kide ohiek **CALEXICO** izena. Desertuan barrena joango bagina bezala eramango zaitu amerikar hauen lehen diskak. Baxuak eta bateriak garrantzia handia duten bitartean, aberastasun ikaragarriaz jutzen dituzte beraien abestiak, paisaia ezberdinak bikainki deskribatzen dituztelarik. Hainbat perkusio erabiliz lortzen dituzten hondar eta lehortasun zapoak, mariatxekin parekatzen dituzte. Filme on guztietan bezala, bukaera heltzen da. Zorionez, kasu honetan 'repeat' batekin konpon genezake.

Iban Urizar
Julen II



Datorren ostiralean, hilak 16, Kokoe Komiki Elkarteak V. Komiki Jardunaldiei hasiera emango die. Egun horretan, komiki erakusketa inauguratuko da Kultur Etxean. Komikiez aparte, besterik ere izango da jardunaldi hauetan. Izan ere, urriaren 23an, zine emanaldi bikoitza eskainiko dute Herriko Antzokian eta urriaren 24an, kontzertua Gaztetxean. Erakusketa bisitatzeko azken eguna hilaren 25a izango da.

Komiki Jardunaldia Kokoe Komiki Elkarteak urtean egiten duen ekitaldirik garrantzitsuena izaten da. Urte batean jardunaldiak antolatzen badituzte, hurrengo urtean komiki lehiaketa prestatzen dute. Aurten, beraz, jardunaldiak antolatzea tokatu da.

Sei egileren lanak

Datorren ostiralean, hilak 16, arratsaldeko 19:00etan irekiko da komiki erakusketa. Aurten sei marrazkilariren lanak egongo dira ikusgai, Euskal Herriko komiki munduko egilerik esanguratsuenen lanak, hain zuzen. Jose Luis Agredak 'El Vibora', 'El Jueves', 'El País de las tentaciones' eta beste zenbait argitalpenetarako egin izan du lan. Erakusketan parte hartuko duen beste komikilari bat Borja Crespo bizkaitarra da. 1997an Elgoibarko Komiki Lehiaketan 3. saria irabazi zuen eta besteak beste, 'Subterfuge', 'La Comictiva', 'El Correoko Viernes de Evasión' eta 'Leer' aldizkarietan argitaratu ditu hainbat lan. Mauro Entrialgo gasteiztarra da eta iragarri, kartel eta publizitate kanpainak egin ditu. Musika munduan ere hainbat saiakera egindakoa eta nola ez, komiki munduan esperientzia luzea dauka hainbat egunkari eta aldizkarietan: 'El País', 'TEMEO', 'Makoki', 'El Vibora' etab. Rober Garay ere marrazkilaria eta grafista lanetan aritu da egunkarietan eta fanzine askotako kidea izandakoa dugu. Alvaro Ortega gazteiztarra terapia bezala hasi zen komikiak ma-



rrazten eta 'El Mundo', 'Diario Vasco', 'La Revista', 'El Semanal', 'Bitniks' eta beste askotan argitaratu ditu bere lanak. Seigarren partehartzailea bilbotarra da. Publizitate agentzia batean ilustratzaile moduan aritu izan da eta arropa alternatiboen marka batentzako diseinuak ere egin izan ditu. Hainbat sari irabazi ditu komikien arloan, eta bekak ere jaso ditu.

Zinea eta musika

Erakusketarekin batera, zine emanaldi bikoitza eta kontzertua Gaztetxean antolatu dituzte Kokoekoek. Urriaren 23an, ostirala, gaueko 22:15ean hasita bi pelikula emango dira Herriko Antzokian. 'Dobermann', Joël Houssin-en nobela beltzean oinarritutako filmea, eta segidan, 'El condón asesino', New York-en, gizonezkoen organo sexualak mozteari ekiten dio kondoi misterioitsu bati buruzko istorioa.

Urriaren 24an, zapatua, Australiako bi talderen musika ezagutzeko eta gozatzeko aukera eskainiko digute. 'Breath Makers' eta 'Drive way service' dira taldeen izenak eta Gaztetxean joko dute gaueko 22:00etan hasita.



MUSIKA

Musikariek gabeko bizimodua imaginatzea zaila izango litzateke, ezta? Eguneroko, goizean goiz jaiki eta gauean oheratzen garen bitartean, era bateko musika entzuten dugu ia etengabe: irrati, telebista, norbait abesten entzutean... Kontua da, gaur egun, eta baita duela urte asko ere, musikak berebiziko garrantzia izan duela gizarte eta kultura guztietan. Elgoibarko Gaztetxea, esaterako, horren islapena dugu. Izan ere, ia astero antolatzen dituzte kontzertuak eta jendetza handiak erakartzen dituzte. Gaur, ostirala, Elgoibarko "6NEMEN9" taldea izango da, hain justu. Kultura adina musika desberdin dago eta gustuak ere anitzak direnez, bakoitzak gehien atsegin duen taldea entzuteko aukera izaten du. Bi neska ekarri ditugu gure artera ea zein musika entzuten duten jakin nahirik.

- 1 - Zein musika mota gustatzen zaizu? Eta zein ez?
- 2 - Etxean ere entzuten al duzu musikariek?
- 3 - Diskak erosi egiten al dituzu? Zenbatean behin?
- 4 - Zein kontzertutan izan zinen azkenekoz?

JONE VILLAR 19 urte

1 - Danetik entzuten dot, baina ez naiz oso musika zalia. Tabernetan nabilenian gehien gustatzen jantana "bakalao" musikia

da, dantzan itxeko eta animatzeko onena da. Hori bai, normalian musika klasikua ez dot entzuten, ez jata gehixegi gustatzen.

2 - Entzuten dot noizian behin baina batez ere telebisiua ikusten dotenez, "MTV" katia gustatzen jata ipintzia, bideuak ikusteko. Bestela, ez naiz irratiaren "Euskadi Gaztea" eta holakuak jartzen daben horietak.

3 - Ez ditzut erosten, ze garestiak dia. Nere anaiak erosten ditzu eta bere diskuak entzuten ditzut.

4 - Azkena San Bartolome jaixetan "Barricada" egon zanian izan zan baina bost minutu bakarrik in genitxun, ze jende mordo bat zauan eta ez zan ezer ikusten. Gustauko jata "D... D... D..."

bat entzutia edo xun. Hala ere, ez zertu zalia, nahixian edo kalia e

5 - Neretzat A Sanz edo Back S taldien atzetik ju garrasika eta maxen diazenak daude. Igual sin eskatuko nioke ko bati baina l aurrera pasada iruditzen jata.

6 - "Ehun k baina oin ez dau

- Eta zein ikusiko zenuke gustura?
- 5 - Zer iruditzen zaizue fans-en fenomenoak? Sinadurarik eskatuko al zenuke?
- 6 - Ezagutzen al duzue Elgoibarko musika talderik?

1 - Batez ere euskal rock-a gustatzen jata: "Barricada", "La polla", "Su ta Gar", "Urtz" eta holakuak. Tabernetan, eta juergia itxeko, "bakalao" musika ere ondo dao. Neri ez jata gustatzen "Camela" eta holako musikia, flamenkua ere ez.

2 - Bai, etxera ailegautakuan itxen doten lelengo gauzia musikia jartzia izaten da. Normalian konpaktuak jartzen ditzut, nere gustuko musikia entzuteko baina gustatzen jata Canal Plus-en egoten dan "Los 40" ikustia ere, bideuak ipintzen ditzuelako.

3 - Normalian lagunuen artian grabaziuak itxen ditzugu, ze pagiakin konpakto bat erostia oso zaila da, garestiak dia eta. Igual aurrera, lanian gaudenian konpakto gehixo erosiko ditzut.

4 - Elgoibarko Gaztetxian "La Polla" egon zan eta

NURIA TOLEDANO 17 urte

bat jatan. Oin igual aretora jungo gera aldian kontzertura. tauko jatan "Platero taldian kontzertua l.

- Pasada bat da, ezin rajinau zer sentitxuben euren idoluan n mareatzeko. Nik lura bat eskatuko e eta elkarrizketak irakurtzen ditzut ina fans-en asuntua sada bat da.

6 - Ez jata bururatzen bat bera ere ez.



**INTERESEKO
TELEFONOAK**

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak 943 461111
 Txanda hartzeko . . . 943 743354
 Planning-a 943 742950
 Alkoholiko Anonimoak . . . 943740385
 D.YA (anbulantzia) . . . 943 464622
 Gurutze Gorria . . . 943 743864
 Mendaroko Ospitalea . . . 943 756264
 Odol Emaileak . . . 943 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak 943 740442
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia 943 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua 943 744366
 Udal Kirol Patronatua . . . 943 744415
 Kultura Zerbitzua . . . 943 742158
 Mendaroko Udala 943 756100
 Ongizate zerbitzua 943741008
 Udaletxea 943 741050
 Udaltzaingoa 943 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra 943 741626
 Kiroldegia 943 744415
 Kontsumo Bulegoa 943 743088
 Liburutegia 943 743525
 Musika Eskola 943 742145
 Mintxeta 943 744315
 Parrokia 943 740842
 Postetxea 943 741547
 Gaztetxea 943 743572

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza . . . 943 740296
 Zaharren Biltokia 943 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola 943 74 21 41
 HHI (EPA) 943 74 08 80
 Herri Eskola 943 74 08 79
 I.M.H. 943 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre 943 74 02 67
 Ezenarro (Meka) . . . 943 74 44 80
 Ikastola 943 74 44 41
 Pilar Ikastetxea 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 943 74 41 12
 El Diario Vasco 943 74 40 73
 El Correo Español . . . 943 74 10 82
 Egin 943 10 84 21
 Zazpiki Irratia . . . 943 74 34 74

10
larunbata

11:00 'TXOKO TAURINO'aren INAUGURAZIOKO MEZA Santa Klaran
Segidan, aurrekua
 Mazzantini jaio zen etxean
Ondoren, luntxa Estazio tabernan
 Antolatzailea: 'Txoko Taurinoa'
19:30-22:30 ZINEA
 "Arma letal IV"

12
astelehena

12:00 MEZA PILAR IKASTETXEAN
 Ondoren, luntxa
22:15 ZINEA
 "Arma letal IV"

9
ostirala

22:30 6NEMEN9 TALDEAREN KONTZERTUA
 Gaztetxean
22:15 ZINEA
 "Arma letal IV"

11
igandea

16:30 ZINEA
 "Los visitantes regresan al tunel del tiempo"
19:30-22:15 ZINEA
 "Arma letal IV"

16
ostirala

22:15 ZINEA
 "Spawn"
 Antolatzailea: Kokoe
 Komiki Elkartea

ZINEA



Arma Letal IV

Martin Riggs eta Roger Murtaugh polizien gorabeheren laugarren atala da. Oraingoan Asiako mafiako buruzagi baten aurka borrokatu beharko dute. Zeregin honetan polizia gazte baten laguntza izango dute. Arlo pertsonalean, polizien bizitzak nahastu xamar dabilta. Izan ere, Murtaugh-en alaba haurdun dago eta Riggs-en emazteak ere haur bat izan behar du.

Zuzendaria: Richard Donner
Antzezleak: Mel Gibson, Danny Glover, Rene Ruso.

● **Pilar Egunean Parrokiko meza Pilar ikastetxean izango da**

Urriaren 12an Pilar ikastetxean bere eguna ospatuko dute. Aurten, Parrokian izaten den 12:30eko ohiko meza, eguerdiko 12:00etan Pilar ikastetxean izango da. Parrokoa eta Legarreta jauna izango dira meza emango dutenak. Ikastetxeko guraso, ikasle ohi eta herritarrei orohar, mezatarako eta ondorengo luntxerako gonbita luzatu nahi die zuzendaritzak.



● **'Mazzantini' ren omenezko Txoko Taurinoaren inaugurazioa**

Luis Mazzantini toreatzailaren omenezko 'Txoko Taurinoaren' inaugurazio ekitaldia bihar, zapatua (hilak 10) izango da. Luis Mazzantini Egia toreatzaile elgoibartarraren omenezko elkarteak da, gizon ospetsu honen irudia berreskuratu nahi izan dutelarik. Ekitaldiak goizeko 11:00etan hasiko dira Santa Klaran izango den mezarekin. Ondoren Haritz Dantzari Taldekoek aurrekoa dantzatuko dute Mazzantini jaio zen Errosario kaleko etxearen oinetan. Segidan, Estazio tabernara abiatu eta luntxa eskainiko dute, eta amaitzeko, agintari eta gonbidatuentzako bazkaria izango da. 'Txoko Taurino' ak Estazio tabernan izango du egoitza eta Jose Luis Arana da presidentea.

● **Huescara irteera Pilarreko jai-zubian**

Morkaiko Mendizale Elkartek antolatuta, urriaren 10, 11 eta 12an, Pilarreko jai-zubian mendi irteera izango da Respomuso-ko (Huesca) aterpetxera. Bertan hartuko dute ostatu, eta nahi duenak hainbat mendira igotzeko aukera izango du. Bi aukera izango dira: alde batetik lo egitea bakarrik ordaintzea, eta bestaldek, pensio erdia. Prezioak edo bestelako xehetasunak jakin nahi dituenak bulego orduetan pasa daiteke elkartetik edo 943 74 02 97 zenbakira dei dezake.

● **6NEMEN9 elgoibartarraren kontzertua Gaztetxean**

Gaur, hilak 9, (ostirala) Elgoibarko 6NEMEN9 musika taldeak bere azken diskoaren aurkezpen kontzertua eskainiko du Gaztetxean gaueko 22:30etik aurrera. 6NEMEN9 taldeak duela pare bat hilabete kaleratu zuen 'Pop-Atic' izeneko diska, taldearen estreinako diska, hain zuzen. Talde honek zer musika mota egiten duen ezagutzeko aukera ezin hobea beraz, gaur, ostirala, Gaztetxean.

T R A N D A R

FARMAZIAK

	Egunez	Gauetz
10	Yudego	Yudego
11	Yudego	Yudego
12	Bidasolo	Bidasolo
13	Etxeberria	Etxeberria (Errosario kalean)
14	Escala	Escala
15	Bidasolo	Bidasolo
16	Etxeberria	Etxeberria (Santa Ana kalean)

ESCALA: Rekalde, 1

Soraluze. Tel: 75 16 38

ANDUAGA: Mendarozabal, 1

Garagarza. Tel: 75 61 42

ZABALETA: Kalebarren, 9

Soraluze. Tel: 75 13 84

OKINDEGIA

11 igandea Idarraga

12 astelehena Doña Mercedes

*Aprobetxatu udaldia gida
baimena ateratzeko*



Santa Ana, 11 • Tel: 943 74 10 11

*bera ematerakoa %10eko
beherapena gaste
txartelarekin*

POL-POL
T A B E R N A

San Bartolome, 19 - Tel: 943 74 08 74



OIERKI IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan
konponduko dizugu igogailua

☎ 943 20 35 15 • ☎ ABERIAK 943 20 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) • 20600 EIBAR

OHARRA: Merkatu Txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdia da.

Lana

◆ ESKAINTZA ◆

- ◆ Neska behar da etxeko lanak egin eta ume bat zaintzeko. Ahal bada, euskalduna. ☎ 943 74 45 87
- ◆ Mutila behar da mezulari lana egiteko. Gida baimenarekin. ☎ 943 74 40 54 (goizez)
- ◆ Sukalde montatzaileak behar dira. Esperientziarekin. ☎ 943 86 14 78
- ◆ Pertsona bat behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Goizeko 7:00etan hasita. ☎ 943 74 39 43 (Gaueko 21:00etatik aurrera deitu)
- ◆ Emakumea behar da goizez umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ 943 74 14 13 (20:00etatik aurrera)
- ◆ Neska behar da tabernako sukaldarako. Ogitartekoak egiteko. Asteburuetan. Esperientziaduna. ☎ 943 74 37 71

◆ ESKAERA ◆

- ◆ 38 urteko neska eskaintzen da gaixoak zaintzeko, bai ospitalean aita etxean gauez ere. ☎ 943 74 31 75 (Carmen, goizez).
- ◆ Klinikak Laguntzailea eskaintzen da gaixoak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta informea ditut. ☎ 943 74 04 86 (Rosa)
- ◆ Neska eskaintzen da haurrak zaindu, etxeko lanak egin edo tabernan aritzeko. Esperientziarekin. ☎ 910 685 295
- ◆ Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko emakumea eskaintzen da. Esperientziarekin. ☎ 943 17 19 13
- ◆ Erizaintzan diplomatutako neska euskalduna eskaintzen da pertsona gaixo edo edadetuak zaintzeko, etxean edo/eta ospitalean, egunez nahiz gauez. ☎ 943 74 27 78 (Itziar)

Partikularrak

- ◆ Kimika eta matematikako klase partikularrak hartuko nituzke, talde txikietan. ☎ 943 74 20 85 / 74 24 23
- ◆ Mekanika eta elektronikako partikularrak emateko norbait behar da. ☎ 943 74 45 75 (arratsalde)
- ◆ Lehen Hezkuntzako klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. ☎ 943 74 17 96
- ◆ Dibujo teknikoko klaseak ematen ditut. ☎ 943 74 43 98 (Iñaki. Gauez deitu)

Etxebizitzak

- ◆ Etxea salgai Mendaron. Sukaldea eta jangela guztiz ekipatuak (Vegasa eta AEG). 35 m2ko garaieja eta 12 m2ko ganbara ditu. ☎ 943 75 62 43
- ◆ Pedro Miguel Urruzunon etxea salgai. 1. solairua. ☎ 943 74 23 44
- ◆ Etxea daukat alokatzeko Santa Ana kalean. ☎ 943 74 06 88
- ◆ San Bartolome 2an, 4. solairuan dagoen 25 m2ko teilatupeko loka-la salgai. 1,5 milioi pta. ☎ 943 20 30 83 (Arantxa)
- ◆ Etxea daukat alokatzeko Santa Ana kalean. ☎ 943 74 06 88
- ◆ Pisua daukat alokatzeko. Osoa edo gelaka klase partikularrak emateko. ☎ 943 74 12 75
- ◆ Logelak ditut alokatzeko. Ura-sandi kalean. ☎ 943 74 03 93 (20:00etatik aurrera)

Salerostaketak

◆ SALDU ◆

- ◆ Akuario haundi bat salduko nuke. Ur berokoa. Guztiz ekipatua. Merkea. ☎ 943 74 15 16
- ◆ Sukalderako mahai biribila salgai prezio onean. ☎ 943 74 10 42
- ◆ Peugeot 205 GTi salgai. Estrak. ☎ 943 74 04 65 (Dani. Gauez)
- ◆ Beretta A304 Silver Lark repetidora saltzen dut. Berria eta garantiarekin. ☎ 943 74 02 09 (Gauez, Alberto).
- ◆ Bulegorako altzariak saltzen ditut. Nahiko berriak. ☎ 943 19 21 28 (gauez)
- ◆ SS-AK matrikuladun Seat Marbella kotxea salgai. Egoera onean. Prezioa: 230.000 pta. ☎ 943 74 11 29
- ◆ Kitarra espainiarra saltzen dut. Berria, estreinatua gabe. ☎ 943 74 17 01 (Asier)
- ◆ Garbigailua saltzen dut. Fagor etxekoa. Prezioa hitz egitekotan. ☎ 943 74 39 75 (Arrate)
- ◆ **◆ EROSI ◆**
- ◆ Trikitixa bat erosiko nuke. 3 edo 4 ahotsekoa. ☎ 943 75 61 83
- ◆ Egoera onean dagoen bigarren eskuko pianoa erosiko nuke. ☎ 943 76 56 78 (M. Jesus. Goizez 10:00etatik 12:00etara)

Bestelakoak

- ◆ Elkarte gastronomikoa izateko egokitutako lokala saltzen da Elgoibarren. Eskaerak bidali 277 P.Kra. 20800 Zarautz.
- ◆ Bi pertsona behar dira Bilbon (San Inazio kalea) pisua osatzeko. ☎ 943 77 12 77
- ◆ 1970 urtean jaio eta Ikastolan ibili ginenon afaria Txarridunan izango da urriaren 31n. Malapen elkartuko gara arratsaldeko 18:30-19:00ak bitartean. Afaria 21:30ean izango da.
- ◆ Kaxa beltz batean sartuta zeuden betaurrekoak galdu ditut. Aurkitu dituenak dei dezala, mesedez. ☎ 943 74 19 57
- ◆ Citroen AX-GT autoa salgai. Extra askorekin. SS AC matrikula du. Prezio onean. ☎ 943 74 33 16 (Josu, gauez)

Agurrak

- ◆ Zorionak gaur urteak betetzen dituzten Mendaroko **amama Pepitari** eta **aitatxo Xabierri**. Mireiaren partez,
- ◆ Zorionak **Esther Idiakezi** urriaren 7an bere urtebetetzea izan zelako. Guraso, anaiia Josu eta ahizpa Mariaren partez.
- ◆ Zorionak **Unai Arceri** hilaren 11n 10 urte beteko dituelako.
- ◆ Zorionak **Asier Goikoetxeari** hilaren 5ean 10 urte bete zituelako.
- ◆ Zorionak **Izaskumi** hilaren 5ean urteak bete zituelako. Familia osoaren partez.
- ◆ Zorionak **Jesus Gerenabarrena**ri hilaren 8an urteak bete zituelako. Familiaren eta bereziki semearen partez.
- ◆ Zorionak **Fumani** neska guztiak zoro-zoro dituelako eta, batez ere, institutuko batzuk. Zure lagunaren partez.
- ◆ Zorionak **Eva Juradori**, Elgoibarko politenari, hilaren 2an 7 urte bete zituelako. Familia osoaren partez.
- ◆ Zorionak **Asier Arregiri** urriaren 5ean 12 urte bete zituelako. Familia guztiaren eta bereziki guraso eta arrea Amaiaren partez.




◆ Zorionak **Leire** eta **Nereari** hilaren 8an 10 urte bete zenituztelako.

◆ Zorionak **Hasier Goikoetxeari** urriaren 5ean 10 urte bete zituelako. Guraso eta aitona-amonen partez.



◆ Zorionak **Aitor Muruari** hilaren 12an 4 urte beteko dituelako. Musu haundi bat familia osoaren partez.



◆ Zorionak **Ion** hilaren 5ean 17 urte bete dituzulako, etxekoan partez, bereziki Iker-en partez.



◆ Zorionak **Johana Rodriguezi**, urriaren 12an 7 urte beteko dituelako. Etxeko guztien partez zazpi tirakada haundi, bereziki aita Jose Mari eta osaba Olu eta Titoren partez.



◆ Zorionak **Keppa Arrizabalagari** hilaren 5ean 9 urte bete zituelako. Familiaren eta bereziki lehengusina Elorri eta Nerea eta anaiia Beñaten partez.



◆ Urriaren 8an 20 urte bete dituzulako, zorionak! **Olaia**, gure etxeko printsesa. Elkarrekin ospatuko dugu "neska guztiok". Izeba eta amatxoren partez. Zorionak, baita ere, lagunaren partez eta ondo ibili larunbateko parrandand!

◆ Ooooo! Kepenita! Oasis batera zoaz baina gure artean sekulako desertua utzi duzu. Kostako zaigu zure txorakeriak entzun gabe egotea. Ondo ibili baina galdu gabe. "Estrellakoak".



SAKONTZEN

✓ **NORENTZAT**
Euskaraz ondo moldatzen diren gurasoentzat

✓ **EZAUGARRIAK**

Iraupena

100 ordu

(Urritik-otsailera)

Ordu eta erdiko klaseak

egunero

Ordutegia

9:30-11:00, 14:30-16:00

19:30-21:00

✓ **PREZIOA:** 7.500 pta

✓ **NORENTZAT**

Euskaraz hitz egiteko erraztasuna galdu duten euskaldun zaharrentzat eta oraindik erraztasunik ez duten euskaldun berrientzat

✓ **EZAUGARRIAK eta PREZIOA**

Sakontzen ikastarokoak bezelakoak

✓ **PREZIOA:** 7.500 pta

LANTZEN

EUSKALDUNTZEN

✓ **NORENTZAT**

Euskaraz gutxi edo oso gutxi dakitenentzat

✓ **EZAUGARRIAK**

Iraupena

250 ordu (Urritik-ekainera). Ordu eta erdiko klaseak egunero

Ordutegia

9:30-11:00, 14:30-16:00, 19:30-21:00

✓ **PREZIOA:** 15.000 pta

MODULOAK

✓ **EZAUGARRIAK**

Iraupena

15 ordu- 2 aste.

Ordu eta erdiko klaseak egunero

✓ **PREZIOA:** 2.000 pta

*Oraindik
izena emateko aukera*

*Abenduan: Ipuin kontaktak


*Otsailean: Jolas eta kantar



ZELETA BARAZKIAK

NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA

*Garaian garaiko fruta:
sagarrak, madariak, babak...*



Kalitatezko produktuak ortutik mahaira zuzene-

ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa ELGOIBAR



KENSINGTON

INGELES A - ALEMANA - FRANTSESA

IKASTETXE GUZTIZ BERRITUA!



IKASTETXE BERRITUA

- INTSONORIZATUTAKO IKASGELAK
- 2, 3, 4 edo 5 ORDU MAILA GUZTIAN
- IKASGELA GEHIAO
- MAILA GEHIAO 1-14
- MULTIMEDIA ETA INTERNET LABORATEGIA
- MATERIAL DIDAKTIKOAREN SALMENTA ZUZENA
- LIBURU ETA BIDEOEN ZERBITZUAK IKASLEENTZAT



ZERBITZUAK

- IDATZIZKO ETA AHOZKO ITZULPENAK - INGELES, FRANTSESA ETA ALEMANA
- LOKUZIO PROFESIONALAK
- 3 URTETIK GORAKOEN SAILA
- GAZTEEN SAILA
- NAQUSIEN SAILA
- ENPRESEN SAILA



GIPUZKOAKO HIZKUNTZA
IRAKASLE ELKARTEKO
BAZKIDE

P. MUGURUZA, 8 - 20870 ELGOIBAR
TEL/FAXA: 943 74 02 36
TEL: 943 74 35 12
E-MAIL: kensington@redestb.es

EGUZKI AUZOA, 7
20577 ANTZUOLA
TEL: 943 78 70 30